


Hitzatzea

Joxe Arratibelen Kontu zaharrak berri

MIEL A. ELUSTONDO



«Goñiko Zalduna atera zen etxetik eta joan zen mendira, ehizera zihoan aitzakian. Bazuen beldurra bere emaztea ez ote zen erabat berea. Mendian zebilela, azaldu zitzaion ondo jantzitako gizon bat esanez:

—Zer zabilta zu hemen denbora pasatzen, zure etxean gauza ikaragarri bat gertatzen den bitartean?

—Zer bada? —erantzun zion zaldunak dena harrিতuta. Ez zuen ezagutzen ezertarako gizon hura.

Ondo jantzitako gizon hura Etsai Zaharra zen, eta Goñiko Zalduna hondatzea nahi zuen.»

Harold Bloomek dioenez, ipuin onek behin eta berriz irakurtzea eskatzen omen dute, eta horrekin batera, behin eta berriz sariztatzen omen dituzte irakurleen berrirakurketak. Horixe da Joxe Arratibelen kontu zaharren kasua. Honen testuek atximurka eta imurtzin egin zidaten estrainekoz irakurri nituenean orain dela hogeitatu bat urte, Azpeitian, Loiolan, larunbat eguerdiz, autobusaren zain nengoela guardasolpean. Ez zait bizian ahaztuko. Dozenan hamahiru liburu baino ez ditut izango hain gogoan.

Ez nituen jatorrizko itxuran irakurri, *Kontu zarrak* liburuan alegia, haurrentzako edizioan baizik. Bi ipuin liburu ziren: *Dirua neurtzeko ontzia* eta *Mari Xor eta beste*. Eta gogoan iltzatu zitzaizkidan. Orain esatera, ipuin edertretan kontatzeko modu ederra ederretsi nuen. Zoragarri iritzi nien, alegia. «Txerri beltza jan huen eta pagazak!» haren trumoia; Errauskiñe «Mari Xor» genuela; lapurren leizea ireki-hesteko formula sesamorik gabekoa: «Abrite

~ Hitzatzea ~

portas, klis, klas!», «Zerrate portas, klis, klas!»... Baina, sasi guztien gainetik, ipuina laburtzeko erabiltzen zuen baliabide literarioa, gurean amak hitzean eta hortzean ematen zuen soluzio bera lotu zitzaidan garunean, goroldioa harriari bezala: «Zer egiten duzu hemen?» galdetu Goñiko Zaldunak, eta neska gazteak erantzun: «Hola eta hola». Edo bi anaietan batak besteari: «Hola eta hola gertatu zaidak». Edo aitak alabari esana, alegia, «inork ez zuela bera hilko, halako eta halako gauza batzuk gertatzen ez baziren». Eta maitagarriak, izugarriak, sorginak, etsaiak, eta etsaiak Arratibelen liburuan hartzen dituen itxura denak –mendiko lehoi, iraun suge nahiz jentil-, kalitatezko testu sotiletan irakurtzeko ziurtasuna.

Beti ere, iruditzen zait Italo Calvinoren araberari delako Joxe Arratibel, beti liburu bera ari dela idazten, edo beti liburu bera idazten ari den idazleetakoa dela. *Kontu zarrak, Erramun eta Mirentxu, Sorginen urrezko maindirea...* liburu bat, hirutan. Edo lautan, gehiago ere sortuko dirrelakoan nago eta. Horretan, John Steinbeck-en antza ematen diot Joxeri, liburu bat idazten beti eta beti. 100 urte dira aurten John Steinbeck jaio zela, Kaliforniako Salinas herri txikian. Hamaika lan egin zuen gaztetan. Besteak beste, herriko soroetan lan egin zuen, marrubiak, sagarrak eta goata biltzen, mexikarrekin batera. Gero liburuetan itsatsi zituen hainbat istorio aditu omen zuen bertan Steinbeck-ek. Are gehiago, pagatu ere egiten omen zien inmigrante haiei, istorio truke. Joxek ez zuen ordaindu beharrik izan. Ez zuen idazle ere izan nahi. Ezta *Kontu zarrak* idatzi eta gerora ere.

Kontu zarrak izenburua gorabehera, bestelako izena zuen Arratibelen liburuak Antton Olariagarenean; alegia, lehenengo edizioko alearen azaletik hartu zuen izen berria: «liburu berdea». Ur-

dina da kolore edizio berriak. Nago, azal koloreen gorabehera, berde hartakoak direla beti Arratibelen liburuak.

«Garai hartan gure Ataungo Ergoneko auzoan jende gehiegi zegoen bertan bizitzeko eta batzuek kanpora joan behar izaten zuten: mikelete –firmatzen jakitea nahiko zen bertan ontzat harteko–, beste batzuk kaminero, morroi, asko neska-me. Nik banituen hiru izeba eta ni baino arreba bat zaharragoa, neskame. Geroago joan ziren nire bi arreba ere neskame.

Baziren ere apaizetarako, eta fraide joaten zirenak. Nik banuen osaba bat fraidea. Atzerrira ere joan ohi zen jendea, Frantziara, Amerikara. Nik bat ezagutu nuen gure auzoan Amerikara joan zena. Ez naiz gogoratzen nora. Gogoratzen naizena da haren azken agurra. Familiakoak eta auzokoak han ginen autobusa hartu zuenean Beasaina tren hartzera joateko. Gero ez dakit nola joan zen.

—Ondo ibili Ameriketara —esaten zion jendeak— eta nahi duzunean itzuli hona.

Nik sei edo zazpi urte izango nituen, baina oraindik gogoan ditut haren azken hitzak:

—Ni banoa, eta Josefate arte!

Geroztik ez nuen haren berririk izan.»

Pello Lizarralde dio naturari buruz galdera egitea asmazio berria dela, burgesen kontua, alegia. Inork ez diola nekazariari galdetzen zer iritzi dion izadiari. Laboraria naturan bizi dela, bertan dagoela, osagarri balitz bezala edo. Iruditzen zait Joxeri ere ez dagoela berak idatzi dituen istorioen gainean galdetzerik. Zer esan nahi duten, ageri diren elementuez, elementu horien sinbologiaz, interpretazioaz... Joxek barru-barrutik bizi ditu kontuok, bere kosmologiaren barne dira, bere atal eta puska. Nekez burutuko genuke Joxe kontu zaharrak gabe.